

2021eko lehen seihilekoaren datuak**EROSKI-K %7,3 IGO DU EAE-KO PRODUKTUEN
SALMENTA, ETA PANDEMIA AURREKO MAILA
GAINDITU DU**

- Euskal produktu freskoen salmentak igo dira gehienbat: %8,6
- Tokiko produktuen 150 bat erreferentzia berri txertatu dira azken urtean
- EROSKI 1.700 euskal hornitzaile ingururekin aritzen da lanean, eta 740 milioi euro baino gehiagoren erosketak egiten dizkie urtero

Elorrio, 2021eko urriaren 8a.- [EROSKI](#)k 7,3 igo ditu EAEko tokiko produktuaren salmentak 2021eko lehen seihilekoan; hala, epe berean 2019an izandako datuak gainditu ditu. 2020an, EROSKI-k 150 erreferentzia txertatu zituen erkidegoko ekoizle txikien produktuenak.

EAEko freskoen salmentak igo egin zirelako izan da hazkunde hori. Igoera horren buruan, eskualdeko frutak eta barazkiak daude, %17,6 igo baitira horien salmentak.

Tokian Tokiko Barazkien Plana eta *Euskal Gaztak* Hazirekin

EROSKI-k berriki garatu dituen proiektuen artean eta urteko lehen seihilekoan tokian tokiko produktuen salmentak igotzen lagundu dutenen artean, nabarmentzekoa da Tokian Tokiko Barazkien Planaren bitartez hamasei ekoizlerekin izan duen kolaborazioa. 2019an abiatu zuen proiektua, eta asmoa izan da sektorea artikulatzea eta barazki motak ugaritzea eta, hala, bezeroari ingurunerik hurbilenean ekoiztutako produktua eskura jartzea.

Era berean, aurten EROSKI-k eta HAZI Fundazioak bat egin dute *Euskal Gaztak* proiektuarekin. Horren helburua da Eusko Label ziurtagiria duten euskal gazten aldaera autoktonoak berreskuratzea.

Ekimen berri horietaz gainera, [EROSKI](#)-k *lankidetza hitzarmenak* ditu [HAZI Fundazioarekin](#) ([Eusko Labelen](#) erakunde ziurtatzailea bera) eta Harakai-Urkaiko kooperatibarekin, Euskal Okela AGBak egiaztatutako behi haragiaren sustapena eta komertzializazioa bultzatzeko *EROSKI Natur Euskal Okela marka propioarekin*. Arrandegian, urteko lehen seihilekoan, Eusko Label ziurtagiria ere txertatu du EROSKI-k zenbait kontserbatan eta antxoia freskoan.

"Jakinarazten ari garen datuek erakusten dute apustua sendotzen ari dela. Bezeroek berretsi digute EAEko tokiko produktuekin eta ekoizleekin dugun konpromisoa; izan ere, tokiko ekonomiaren alde egitea erabaki dute. Gure tokiko

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

hornitzaileekin lankidetza estu bat bilatzen dugu, luzera begirako hitzarmenak lortzeko eta hala EAEko nekazaritzaren eta sozioekonomiaren garapenean laguntzeko", esan du EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

EAEn nekazaritzako elikagaien arloan diharduten 300 ekoizle txiki ingururekin ari da EROSKI; alde horretatik, haien produktuek leku nabarmenduak dituzte bere dendetan, batez ere sasoiari sasoiko frutek, berdurek eta barazkiek. EROSKIren politika komertzialak ahal den gehiena indartzen ditu tokiko ekonomiak, ingurunean aberastasuna sortzeko eta nekazaritzako elikagaiak, gizartea eta ekonomia garatzen laguntzeko. Eredu horrek oso dibertsifikatuta dagoen tokiko nekazaritza-ehuna bultzatzen du, zeina giltzarrizkoa baita sektorearen iraunkortasunerako.

Janari banatzaileetan lehena EAEn

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien banaketan. EROSKI 9.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta hemengo 1.700 hornitzaile ingururekin dihardu, haiei 740 milioi eurotik gorako erosketak eginez urtero.

411 saltoki ditu guztira autonomia erkidegoan, hala nola supermerkatuak, hipermerkatua, cash & carryak, gasolindegia, optikak, bidaiak bulegoak eta [Forum Sport](#) dendak eta [Dooers](#) dendak, bai eta [on line](#) supermerkatua ere, zeina bakarrik baita erosketak EAE osoko edozein etxetara eramaten dituen. EROSKI Cluben fidelizazio programak 848.000 bezero-bazkideentzako inguru ditu autonomia erkidego honetan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)